# I ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Foru Arauak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**2000ko ekainaren 9ko 438 FORU AGINDUA, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatuarena, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 51.q) artikuluan arautzen den atxikipen-salbuespena gauzatu ahal izateko prozedura ezartzen duena.**

**3.867**

Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuaren 51.q) artikuluak, Uztailaren 5eko 24/1996 Foru Araua, Sozietateen Zergari buruzkoa, erregelamendu bidez garatzen duenak xedatzen du Sozietateen gaineko Zergaren zergapekoek finantza-aktiboetatik eskuratutako errentei ez zaiela atxikipena egiteko ez eta kuotaren kontura aldez aurreko dirusarrera egiteko betebeharrik ezartzen, beti ere finantza aktibook kontuko idazpenez adierazitakoak eta bigarren mailako espainiar balore-merkatu ofizial batean negoziatutakoak badira.

Bestalde, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, 6/1999 Foru Dekretuak, urtarrilaren 26koak, – kapital-errentetan eta zenbait ondare-irabazi jakinetan atxikipenak eta kontuko sarrerak egiteko betebeharra duten pertsona eta erakundeek aplikatu beharreko araudia onartzen du– 3.1.a) artikuluan, kapital higikorraren errendimenduak atxikipen eta kontuko sarreren pean egongo direla xedatzen du.

Alabaina, aipatutako urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuaren 3.3 artikuluak zerrenda baten jasotzen ditu kontuko sarrerarik edo atxikipenik egin behar izango ez zaizkien errentak, eta horien artean sartzen ditu, arestiko 3.3. artikulu horren f) letran xedatutakoarekin bat etorriz, berariaz ezarritako errendimenduko finantza-aktiboen eskualdaketa eta ordainketatik datozen errendimenduak, aktibook kontuko idazpenez adiarazitakoak eta bigarren mailako espainiar balore-merkatu ofizial batean negoziatutakoak direnean. Hala ere, Sozietateen Zergaren zergapekoen kasuan ez bezala, atxikipena jasango dute ezarritako eskakizunak dauzkaten finantza--aktiboek sortutako interesek.

Egoiliar ez direnen Errentaren Gaineko Zergari dagokionez, Araban aplikatzekoa den xedapenak dio Zergaren pean dauden errentak, establezimendu iraunkorraren bitartez eskuratu direnean, atxikipenaren edo kontuko sarreraren pean egongo direla, Sozietateen zergaren araudiak bere zergapekoei ezartzen dizkien egoera eta baldintza berberetan.

Atxikipenak eta kontuko sarrerak egiteko egungo sistemak, bigarren mailako espainiar balore-merkatu ofizial batean negoziatutakoa izan eta kontuko idazpenez adierazita dagoen finantza-aktiboen kupoiak edo interesak ordaintzerakoan, zera eskatzen du, atxikitzaileek ezagutu dezatela hartzaileak duen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen Zergaren edo egoiliarra izan gabe establezimendu iraunkor baten bitartez eskuratutako Errentaren gaineko Zergaren zergapeko izaera, horrela, ordaintzen dituzten errenta edo errendimenduetan atxikipenak hobeto egin ahal izateko.

Hala ere, finantza aktibo horiek, oro har, finantza-erekunde jakin batzuetan gordailuan utzita egoteak, arazoak sortzen ditu atxikipenak eta kontuko sarrerak aplikatzerakoan, zeren eta, aktibo horiek jaulki dituenak, kupoiak ordainketa-egunera iritsiaz batera, finantza-erakunde bakoitzari ordaintzen baitizkio errendimenduak, gordailuan utzita dauzkan tituluen kopuruaren heinean, gero, azken horiek aktiboen titularrei ordain diezazkieten, eta horrela, jaulkitzaileak azken hartzaileen izaera ezagutzerik ez du.

Aitzitik, ez da horrelakorik gertatzen kontuko idazpenez adierazitakoa izan eta bigarren mailako espainiar balore-merkatu ofizial batean negoziatutakoa den finantza-aktiboen eskualdaketa edo ordainketetan , 6/1999 Foru Dekretuaren, urtarrilaren 26koaren 3.3f) artikuluak eta 51/1997 Foru Dekretuaren, maiatzaren 20koaren

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Ordenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**ORDEN FORAL 438 del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 9 de junio de 2000, por la que se establece el procedimiento para hacer efectiva a exclusión de retener regulada en el artículo 51.q) del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades.**

**3.867**

El artículo 51.q) del Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, por el que se procede a desarrollar reglamentariamente la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, dispone que no existirá obligación de retener ni de ingresar a cuenta respecto de las rentas obtenidas por los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades procedentes de activos financieros, siempre que estén representados mediante anotaciones en cuenta y se negocien en un mercado secundario oficial de valores español.

Por otra parte, en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el artículo 3.1.a) del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, (por el que se aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones e ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales), dispone que están sujetos a retención o ingreso a cuenta los rendimientos del capital mobiliario.

Ahora bien, el artículo 3.3 del citado Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, establece una relación de las rentas sobre las que no existe obligación de practicar retención o ingreso a cuenta, entre las cuales se incluyen, de conformidad con lo dispuesto en la letra f) del citado artículo 3.3, los rendimientos derivados de la transmisión o reembolso de activos financieros con rendimiento explícito siempre que estén representados mediante anotaciones en cuenta y se negocien en un mercado secundario oficial de valores español, si bien, y a diferencia de lo establecido para los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades, quedan sometidos a retención los intereses que procedan de los activos financieros que reúnan los requisitos señalados.

Por lo que al Impuesto sobre la Renta de no Residentes se refiere, la disposición aplicable en Álava, dispone que las rentas sometidas a este Impuesto que se obtengan por mediación de establecimiento permanente estarán sometidas a retención o ingreso a cuenta, en los mismos supuestos y condiciones que los establecidos en la normativa reguladora del Impuesto sobre Sociedades para los sujetos pasivos por este Impuesto.

El sistema actual de retenciones e ingresos a cuenta exige que en el pago de intereses o cupones de los activos financieros anotados en cuenta y que se negocien en un mercado secundario oficial de valores español, los retenedores deban conocer la condición del perceptor como contribuyente por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, como sujeto pasivo del Impuesto sobre Sociedades o como contribuyente por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes por obtención de rentas mediante establecimiento permanente para una correcta aplicación de las retenciones por las rentas o rendimientos que satisfagan.

Ahora bien, el hecho de que estos activos financieros se encuentren depositados, con carácter general, en determinadas entidades financieras, origina problemas prácticos, en la aplicación de la obligación de retener e ingresar a cuenta, en la medida en que el retenedor-emisor de los activos, al vencimiento del cupón correspondiente, abona los rendimientos a las entidades depositarias en función del número de títulos que en cada una de ellas se encuentren depositados, para que éstos, a su vez, los abonen a los titulares de los activos, sin conocer el emisor la naturaleza de los perceptores finales.

Sin embargo, esta circunstancia no se produce en las transmisiones o reembolsos de activos financieros que estén representados mediante anotaciones en cuenta que se negocien en un mercado secundario oficial de valores español, a los que se refieren el artículo 3.3.f) del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero y el artículo

51.q) artikuluak aipatzen dituen horietan, eta hortaz, ez dute Foru Agindu honek onartzen duen prozeduraren barnean sartzerik behar.

Komenigarritzat jo da Foru Agindu honek ezartzen duen prozeduraren ezarpen-eremutik kanpo uztea Zor Publikoaren baloreek, Altxor Publikoak eta Zor Publikoaren Merkatuko Idazpenen Zentralak zuzen-zuzenki esku hartzen duen horiek sortzen dituzten errentei dagokien kontuko sarrera edo atxikipenaren salbuespena; errenta horiek atxikipenetik salbuetsi egiten ditu indarreko araudiak. Hori horrela izanik ere, Foru Agindu honetako prozedura ezarri egingo zaie Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorrak eta Toki Erakundeek jaulkitakoak izanik, goian aipatutako bi erakunde horiek esku hartzen ez duten tituluek sortzen dituzten interesei.

Esku artean darabilgun prozedura honen xedea da kontuko idazpenetan adierazitakoak eta bigarren mailako espainiar baloremerkatu ofizial batean negoziatutakoak diren finantza-aktiboek sortzen dituzten interesak kontuko sarrera eta atxikipen betebeharretatik salbuestea, horien hartzailea Sozietateen Zergaren zergapekoa edo Egoiliarrak ez direnen Errentagatik, establezimendu iraunkorraren bitartez eskuratutako errentak direla eta, kontribuziogilea denean. Salbuespen horretatik kanpo uzten dira arestian aipatutako Zor Publikoaren baloreek sortutako errenta edo errendimenduak.

Foru Agindu honen bitartez prozedura hau onartzea maiatzeko 21eko 51/1997 Foru Dekretuaren 51.q) artikuluaren babespean egiten da.

Horren guztiaren gainean Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Kontsulta Batzordeak hurrenez hurren emandako txostenak ikusi dira.

Aurreko guztia medio, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatu naizenez, dagozkidan ahalmenak erabiliz,

XEDATZEN DUT:

**1. artikulua.- Uztailaren 5eko 24/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergarena, erregelamendu bidez garatzen duen Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuak 51.q) artikuluan aurreikusten duen prozedura onartzea.**

Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuak, uztailaren 5eko 24/1996 Foru Araua, Sozietateen Zergarena, erregelamendu bidez garatzen duenak, 51 artikuluaren q) letran arautzen duen atxikipenaren salbuespena gauzatzeko prozedura ezartzen da, hurrengo artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Salbuespen hori kontuko idazpenez adierazitakoak eta bigarren mailako espainiar baloremerkatu ofizial batean negoziatutakoak diren finantza--aktiboen interesei dagokie.

Prozedura hau ez zaie aplikatuko Zor Publikoaren baloreek sortutako errentei, salbu eta baloreak Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorrak edo Toki Erakundeek jaulkitakoak badira.

**2. artikulua.- Prozeduraren edukia**

Ondoko betekizunak bete beharko ditu kontuko sarrera edo atxikipenen salbuespena gauzatzeko prozedurak:

1. Kupoien mugaeguna iristen den bakoitzean, jaulki dituen erakundeak zuzen-zuzenean edo ordainketa-agentearen bidez helaraziko die gordailudun erakundeei interesen guztirakoari egun horretan indarrean den atxikipen tipoa ezarri osteko zenbateko likidoa.

2. Kupoi bakoitzaren mugaegunaren hurrengo hilabetearen 10a baino lehen, gordailudun erakundeek jaulkitzaileari zerrenda zehaztua aurkeztu beharko diote, Sozietateen Zergaren zergapekoena eta establezimendu iraunkorrez errentak eskuratu eta Egoiliar ez direnen Errentaren Zergagatik titular kontribuziogile direnena, horiek identifikatzeko honako datuak adireaziz: sozietatearen izena, helbidea, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, baloreen ISIN kodea (Baloreen Merkatuaren Estatuko Batzordearen urriaren 8ko 1/1998 Arau Teknikoaren arabera osatutakoa), kupoi bakoitzaren mugaegunean zenbat baloreren titular diren, horiei dagozkien errendimendu gordinak, eta atxiki zaien zenbatekoa.

3. Baloreen titularrek, Sozietateen Zergaren zergapeko eta establezimendu iraunkorrez errentak eskuratu eta Egoiliar ez direnen Errentaren Zergagatik titular kontribuziogile direnean, egiaztatu

51.q) del Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, por lo que se considera que no es necesaria su inclusión en el ámbito del procedimiento que se aprueba mediante la presente Orden Foral.

Se ha considerado conveniente excluir del ámbito de aplicación del procedimiento que se establece en la presente Orden Foral, la exoneración de retención o ingreso a cuenta en relación con las rentas derivadas de los valores de la Deuda Pública, que según la normativa vigente estén exceptuados de retención, en los que intervienen directamente el Tesoro Público y la Central de Anotaciones del Mercado de Deuda Pública. No obstante, el procedimiento previsto en la presente Orden Foral sí será de aplicación en relación con los intereses derivados de títulos emitidos por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y por las Corporaciones Locales en los que no intervienen las citadas entidades.

El citado procedimiento, tiene como objetivo hacer efectiva la exoneración de la obligación de retener o ingresar a cuenta en relación con los intereses procedentes de los activos financieros que estén representados mediante anotaciones en cuenta y se negocien en un mercado secundario oficial de valores español, a excepción de los rendimientos o rentas procedentes de valores de la Deuda Pública antes citada, cuando el perceptor sea sujeto pasivo del Impuesto sobre Sociedades o contribuyente por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes por obtención de rentas mediante establecimiento permanente.

El procedimiento que se aprueba mediante la presente Orden Foral se realiza al amparo de lo dispuesto en el artículo 51.q) del Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

Por lo anterior, como Diputado Titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

**Artículo 1.- Aprobación del procedimiento previsto en el artículo 51.q) del Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, por el que se procede a desarrollar reglamentariamente la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades**

Se establece, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo siguiente, el procedimiento para hacer efectiva la exclusión de retención regulada en la letra q) del artículo 51 del Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, por el que se procede a desarrollar reglamentariamente la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, en relación con los intereses de los activos financieros que estén representados mediante anotaciones en cuenta y que se negocien en un mercado secundario oficial de valores español.

Este procedimiento no será de aplicación a las rentas procedentes de valores de la Deuda Pública, con excepción de la emitida por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y por las Corporaciones Locales.

**Artículo 2.- Contenido del procedimiento**

El procedimiento para hacer efectiva la exclusión de retención o ingreso a cuenta, deberá ajustarse a los siguientes requisitos:

1. La entidad emisora transferirá, directamente o a través de su agente de pagos, en cada vencimiento de los cupones, a las entidades depositarias, el importe líquido que resulte de la aplicación del tipo general de retención vigente a esa fecha, a la totalidad de los intereses.

2. Antes del día 10 del mes siguiente al mes del vencimiento de cada cupón, las entidades depositarias deberán presentar ante la entidad emisora una relación detallada de los titulares sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades y de los titulares contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes por obtención de rentas mediante establecimiento permanente, identificados por su razón social, domicilio, Número de Identificación Fiscal, código ISIN de los valores (configurado de acuerdo con la Norma Técnica 1/1998, de 8 de octubre, de la Comisión Nacional de Mercado de Valores), número de valores de los que es titular a la fecha de vencimiento de cada cupón, rendimientos brutos correspondientes e importe retenido.

3. Los titulares de los valores que sean sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades o contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes por obtención de rentas mediante

egin beharko dute izaera hori baloreok gordailuan utzi dizkieten erakundeen aurrean, kupoi bakoitzaren mugaegunaren hurrengo hilabetearen 10a baino lehen, gordailudun-erakundeek arestian aipatu zerrenda egin ahal izan dezaten.

4. Jaulkipena egin duen erakundeak, Sozietateen Zergaren zergapekoen eta establezimendu iraunkorrez errentak eskuratu eta Egoiliar ez direnen Errentaren Zergagatik titular kontribuziogile direnen zerrenda – artikulu honen 2. zatian aipatzen dena – jaso bezain laister, lehenbailehen helaraziko dizkie gordailudu erakundeei kontribuziogile edo zergapeko horiei atxiki zaien zenbatekoa, zuzen-zuzenean berak edo ordainketa-agentearen bitartez.

5. Gordailudun erakundeek berehala ordainduko diete atxikitako zenbatekoa, jaulkipena egin duen erakundearen kontura, Sozietateen Zergaren zergapekoei eta establezimendu iraunkorrez errentak eskuratu eta Egoiliar ez direnen Errentaren Zergaren kontribuziogile direnei.

6. Sozietateen Zergaren zergapekoaren eta establezimendu iraunkorrez errentak eskuratu eta eta Egoiliar ez direnen Errentaren Zergagatik kontribuziogile izatearen egiaztapena egiteko, zeina aurreko 3. zatian aipatu baiten, baloreen titularrek zuzenbidean onargarri den edozein froga-modu erabili ahal izango dute, eta dagokien justifikazio-agiria ere aurkeztu beharko dute. Agiri hori gordailudun erakundeak gordeko du, jaulkipena egin duen erakundearen eta Zerga-administrazioaren eskura egon dadin, egiaztatu ahal izateko. Helburu horretarakoxe, justifikazio-agiritzat hartuko da Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia egiaztagarri bat.

AZKEN XEDAPENA

Honako Foru Araua Araba Lurralde Historikoko ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2000 ekainaren 9a.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.– Ogasun Zuzendaria, ANGEL BARRASA SOBRON.

establecimiento permanente deberán acreditar tal circunstancia ante las entidades depositarías de los valores antes del día 10 del mes siguiente al mes del vencimiento de cada cupón, a fin de que las entidades depositarias puedan elaborar la relación indicada en el apartado anterior.

4. La entidad emisora, tan pronto como reciba la relación detallada de los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades y contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes por obtención de rentas mediante establecimiento permanente a que se refiere el apartado 2 anterior del presente artículo, transferirá de forma inmediata, directamente o a través de su agente de pagos, a las entidades depositarias el importe retenido a dichos sujetos pasivos o contribuyentes.

5. Las entidades depositarias abonarán inmediatamente, por cuenta de la entidad emisora, el importe retenido a los titulares sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades y contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de no Residentes por obtención de rentas mediante establecimiento permanente.

6. A efectos de la acreditación de la condición de sujeto pasivo del Impuesto sobre Sociedades o contribuyentes por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes por obtención de rentas mediante establecimiento permanente, a que se refiere el apartado 3 anterior, los titulares de los valores podrán utilizar cualquier medio de prueba admisible en derecho, debiendo aportar la documentación justificativa correspondiente, la cual deberá quedar en poder de la entidad depositaria, a disposición de la entidad emisora para su verificación y de la Administración Tributaria. A estos efectos, tendrá la consideración de documentación justificativa una fotocopia acreditativa del Número de Identificación Fiscal.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, 9 de junio de 2000.– El Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos. JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.– El Director de Hacienda.– ANGEL BARRASA SOBRON.

## Iragarpenak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**4.041**

3560 zenbakiko Iragarpeneko hutsen zuzenketa –Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu zen eguna: 2000ko ekainaren 9a, ostirala, 65 zenbakia–. Horren bidez, jakinarazi beharreko likidazioen berri ematen da, hainbat arrazioengatik ezin izan baita jakinarazpen pertsonala egin.

Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALaren 65 zenbakian argitaratzeko bidali zen testuan huts bat aurkitu denez, dagokion zuzenketa egiten da ondoren.

Honakoa dioenean: “1999ko ekitaldia”

Honakoa esan behar du: “2000ko ekitaldia”.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko ekainaren 15a.– Ogasun zuzendaria, ANGEL BARRASA SOBRON.

### NEKAZARITZA ETA INGURUMEN SAILA

INGURUMEN ZUZENDARITZA

*Mendi Zerbitzua*

**4.006**

Dagoeneko egin dira neurtzeko eta behin-behineko mugarriak jartzeko lanak Kuartangoko Udaleko Landa Katastroko 404 zenbakiko Herri Erabilerako Mendian eta 16 poligonoko 8 zenbakiko lurzatian, Marindako Administrazio Batzarraren jabetzakoak biak. Beraz, Araba Lurralde Historikoko mendien erregimena arautzen duen uztailaren 4ko 13/86 Foru Arauaren 27. artikulua betetzeko, zedarritze-espedientea Kuartangoko udaletxeko bulegoetan ikusgai jarriko dela jakinarazten da, iragarpen hau argitaratu ondorengo hamabost eguneko epean interesatuek aztertzeko aukera izan dezaten.

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**4.041**

Corrección de errores de Anuncio número 3560 –publicado en BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava número 65 de viernes 9 de junio de 2000– de liquidaciones que requieren ser notificadas y que, debido a diversas causas, no han podido ser objeto de notificación personalizada.

Advertido error en el texto remitido para su publicación en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava número 65 se procede a efectuar la oportuna rectificación

Donde dice: “ejercicio 1999”.

Debe decir: “Ejercicio 2000”.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de junio de 2000.– El Director de Hacienda, ANGEL BARRASA SOBRON.

### DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y MEDIO AMBIENTE

DIRECCION DE MEDIO AMBIENTE

*Servicio de Montes*

**4.006**

Realizadas las labores de apeo y amojonamiento provisional del límite del Monte de Utilidad Pública número 404 y de la parcela número 8 del polígono 16 del Catastro de Rústica del Ayuntamiento de Kuartango, ambos de la pertenencia de la Junta Administrativa de Marinda, se hace saber que, en cumplimiento del artículo 27 de la Norma Foral 13/86, de 4 de julio, reguladora del régimen de los Montes del Territorio Histórico de Alava, se abre vista del expediente de deslinde en las oficinas del Ayuntamiento de Kuartango, para que pueda ser examinado por los interesados durante los quince días siguientes a la publicación del presente anuncio.